

## BILBOKO ELIZBARRUTIA: 70 URTE

*Vatikanoaren Quo commodius* buldaren bidez (1949-11-02) Gasteizko elizbarrutia izan zena Bilbo, Donostia eta Gasteizko hiru elizbarrutitan zatituta gelditu zen. Gaetano Cicognani nuntzioak betearazi zuen aipatutako bulda.

Casimiro Morcillo izan zen Bilboko lehen gotzaina eta Bueno Monreal eta Font Andreu, hurrenez-hurren, Gasteizko eta Donostiakoak. Bilbo eta Gasteizko elizbarrutiak Burgosko artzapezpiku-barrutiaren barruan jarri zituzten, eta Donostiakoa Iruñekoari lotuta. Bidenabar esanda, Baionakoa Bordelekoaren manupean. Bestalde, Euskal Herriko elizbarrutiak Espainia eta Frantziako apezpiku Konferentzien kide dira. Noiz Euskal Eliz Probintzia?

### *D. Casimiro Morcilloren agintaldia.*

Katedraleko kabildoa martxan jarri; Gotzaindegiko Kuria eta Eliz Auzitegia abiarazi eta Seminarioa martxan jartzea izan ziren bere lehen zereginak. Bizkaiko Aldundiarenak ziren Derioko eraikin-estrukturak doan eman zizkion Jabier Ibarra aldunak Gotzaindegiari.

Nervion ibaiaren bi ertzetako *Misioa* burutu zen, 1953. urtean, Langarika fraide Pauldarraren gidaritzapean. Misioaren ondoren *Leon XIII institutuak* eragindako ahaleginak harrera ona izan zuen Bilbo eta inguruan.

*Teologia del trabajo, Teologia de la empresa* eta *Deontologia del empresario* lirateke D. Casimiroren idazki azpimarragarrienetakoak.

Kontutan hartzekoak, halaber, gerra zibilaren erruz Bizkaitik alde egin behar izan zuten apaizen errekuera; eta apaizen *beziara iraukorreko* jarritako bitartekoak.

Elizbarrutiko *Sinodorako* antolaketa batzordea ere sortu zuen nahiz eta Sinodoa ez burutu, Zaragozako Artzapezpiku izateko destinatu baitzuten. Halere, Santiagoko Katedrala kontsakratu ahal izan zuen (1955-XII-30) eta zenbait parrokia berri sortu Bilbon.

D. Pablo Gulpide izan zen ondorengo gotzaina Bilbon (1956-1968). Une oso kritikoak egokitu zitzaizkion, azken urteetan batez ere.

Seminarioa osatu zuen Seminario nagusia ere martxan jarri eta bertarako arduradunak eta irakasleak hautatuz.

Hauexek D. Pablo Gulpideren idazki azpimarragarrienak: *Pastoral sobre los problemas sociales de nuestra diócesis*, JOC-eri buruzko gutun pastoralala (1961) eta *Mater eta Magistra* entziklikaren argitalpenaren kariatara Juan Jose Rodriguez, Rafael Belda eta Jose Maria Larreak idatzitako gutun pastoralala.

1960. urtean Iruñea, Bilbo, Donostia eta Gasteizko 339 apaizek idazki bat egin eta Euskal Herriko eta Espainiako gotzainei bidali zieten Euskal Herrian nabarmena zen pertsona eta herriaren zapalketa salatuz. *a divinis suspentzioz (?)* zigortu zituen Gulpide gotzainak eta destino aldaketa mordoa gauzatu. *Kleromoto* bortitza gertatu zela izan zen apaiz eta eliztarren arteko komentario nagusia.

Juan XXIII.ak Kontzilioa konbokatatu zuen, Vatikanoko II.a kontzilioa izan zena eta 1962-63-64 eta 65ean burutu zena. D. Pablo Gulpide partaide izan zen azkenengo sesioan izan ezik, gaixotu egin baitzen. Pastoral kontseilu bat eratu zuen gotzainaren gaixoaldiari nolabait erantzuteko.

1966ko jubileo urtean Adiskidetze meza bat ospatu zen. D. Klaudio Gallastegi, Alberto Gabikagojeaskoa, Periko Lauzirika

(¿?), Ismael Díaz izan ziren, besteak beste, meza horretan. Kontzilioaren hasieraren harrera egiteko probestu zen meza.

Enkomienda bat ere bere gain jaso zuen D. Pablok Bizkaiko apaizak Chiloe eta Brasilerara bialtzeko. Han jarraitzen du gotzain Santurtziko seme den D. Jose Maria Caminok.

1968. urtean, Bizkaiko zenbait apaizek Bilboko Gotzaitetik bulegoak okupatu zituzten, ekainean; uztailan, Zamorako apaiz-kartzela zabaldu zen; abuztuan, Gotzaindegiko bulegoen bigarren okupazioa. Azaroan, 4 - 4 - 1000 kontsignari erantzunez, Bizkaiko 60 apaizek Derioko seminarioa okupatu zuten. D. Pablo Gurpidek *a divinis suspentsioz* zigortu zituen.

Azaroaren 13an hil zen D. Pablo Gurpide.

D. Jose Maria Cirarda, Santanderko gotzaina, Bilboko Administrari Apostoliko izendatua izan zen. Bilbora etorri eta berehala ezabatu zuen seminarioan sartutako apaizen *a divinis suspentsio* zigorra.

D. Antonio Añoveros Bilboko gotzain izan zen 1971-12-19tik 1978-09-25era arte. 1974. urtean hiru homilia idatzi zituen katekesi modura predikatzeko Bizkaiko eleizetan. *La salvación cristiana* izenekoa izan zen lehenengoa, *La Iglesia, sacramento de la salvación de Cristo* bigarrena eta *El cristianismo, mensaje de salvación para los pueblos* hirugarrena. Hirugarren honetan urteetan aipatu ere egin ez zen eta *tabu* gisa ikusten zen *euskal arazoaz* aritu zen.

Modu oso neurtuan eta Kontzilioaren eta Aita Santuen –Juan XXIII eta Pablo VI.aren irakatsietan oinarrituta bereziki azaltzen zituen Euskal Herriaren kultur berezitasunak, horien artean milaka urteak dituen hizkuntza: *euskara* gailentzen delarik.

Hirugarren katekesi honen edukiak erreakzio oso gogorra eragin zuen Espainiako estatuaren aldetik bai D. Antonio eta bai garai haretan Bikario Nagusi zen D. Jose Angel Ubieta beraien etxeetan egotera beharturik zigortuz eta Sondikako aireportuan hegazkin berezi bat paraturik biak ala biak desterrura

eramateko. Egoera honetan azpimarratu behar herritarren sektore garrantzitsuak jarrera irmoa erakutsi zuela D. Antonioren etxea fisikoki inguratuz poliziaren sarrera oztopatzeko.

Dena dela garai haretako gobernu, Arias buru zuena, jarrerara biguntzen joan zen, desterrua eskatzetik egun batzuetan Bilbotik kanpo egotea baino besterik ez eskatzeraino.

Bilboko Elizbarrutiaren 70 urteetako ibilbidea zirriboratu nahi duen idazki honetan, Elizbarrutia ez direla gotzainak bakarrik kontutan hartu beharko da eta urte hauetan eliztarren artean izan den bilakaera ezin alboratu ala ahaztu.

Azterketa soziologikoen argitu ahal ditzakeen datuen faltan, kristautasunaren bilakaerak izan duen beheranzko bilakaera hain nabarmena izanik, ez dago ausartegia izan beharrik iritsi bat edo beste emateko.

Kristauen zati handi bat –gazteek ia denak– ez dira praktikanteak; horrela, bada, geroz eta ume gitxiago bateatzen da eta, ondorioz, geroz eta Lehen Jaunartze eta ezkontza gutxiago. Eta beherakada hau hileteetara ere heldu da eta hileten ordez agur zibilak eta ezertariko ospakizunik egin gabeko hobiratzeak ere egin ohi dira.

Halere, kristautasunaren baitako espiritualitatea asko eta asko galdu den arren, adi behar genuke laikotasunean sustatutako dituen espiritualitatea atzemateko: mundu ikuskera primitiboa, euskal garai eta gune mitologikoak, batasun eta erlazio ekologikoaren sena, euskara bera egungo euskal espiritualitatearen adierazpen, et abar.

Euskal kontzientzian sakonduz eta Euskal Herria eta euskal herritarrak modu eraginkorrean maitatuz loratuko da bilatzen dugun espiritualitatea.

Maitasun horrek munduko herriak aintzat hartu eta maitatzera eramango baikaitu.

*Martin Orbe*